



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2016ko apirilaren 5a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehen

HASTEKO ORDUA: 19:35 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Angel del Hoyo Bravo alkateordeak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Martxoaren 10eko 88/2016 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez 1/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea onartzen da, ordainketa-kredituak txertatzeko modalitatean, 2015eko aurrekontutik indarrean dagoen 2016ko aurrekontura.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 2/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua gehitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalak aldatzea, Orioko Danbolin Musika Eskolako 2016-17 ikasturteko irakaskuntza-tasei dagokienez eta kiroldegia erabilera-tasei dagokienez.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko zarata-mapari.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzaren bigarren aldaketa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko kale-garbiketa zerbitzua kontratatatzeko klausula administratibo partikularrak eta baldintza teknikoen orria.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko hondakin solido urbanoen bilketa eta garraio zerbitzua kontratatatzeko klausula administratibo partikularrak eta baldintza teknikoen orria.
- 8.- Onartzea, egoki bada, EHBildu udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen autobus-zerbitzu publikoari buruz.

Esan-eginak

1.- MARTXOAREN 10EKO 88/2016 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ 1/2016 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DA, ORDAINKETA-KREDITUAK TXERTATZEKO MODALITATEAN, 2015EKO AURREKONTUTIK INDARREAN DAGOEN 2016KO AURREKONTURA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Martxoaren 10eko 88/2016 alkate-dekretuaren bidez onartutako 1/2016 espedientea ordainketa-kredituak txertatzeko modalitatean egina dago, 2015eko aurrekontutik indarrean dagoen 2016ko aurrekontura; kreditu-aldaketak 375.661,13 euroko zenbatekoa du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 2/2016 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2/2016 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 143.490 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 2/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 143.490 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEA, ORIOKO DANBOLIN MUSIKA ESKOLAKO 2016-17 IKASTURTEKO IRAKASKUNTZA-TASEI DAGOKIENEZ ETA KIROLDEGIAREN ERABILERA-TASEI DAGOKIENEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EA)], Salsamendi (EA)], Campos (EA)], Cotado (EA)], Bello (EA)], Uranga (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Emeterio Iribar (EHBildu), Lasa (EHBildu), Igoa (EHBildu) eta Ubegun (EHBildu), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA ordenantza fiskalak aldatzeari, Orioko Danbolin Musika Eskolako 2016-17 ikasturteko irakaskuntza-tasei dagokienez eta kiroldegia erabilera-tasei dagokienez, ondoren azaltzen diren terminotan:

4.3. Orioko Udal Musika eskolan egindako ikasketak

2016-17 ikasturtean aplikatuko diren tarifak honako hauek izango dira:

Tarifa bakarrak:

Euroak

a) Musika mintzaira ikasleko.....	244
b) Instrumentu ikasgaia ikasleko (2. eta 3. mailan).....	356
c) Musika tailerra ikasleko (1. mailan).....	178
d) Ikasketa osagarriak (3. mailan).....	244
e) Bigarren instrumentua ikasleko (2. eta 3. mailan).....	641
f) Euskal dantza ikasleko.....	244
g) Euskal dantza ikasleko (beste instrumentu batean ere matrikulatua egonez gero).....	169
h) Musika instrumentuen alokairua (etxera eramanda).....	114
i) Musika instrumentuen alokairua (musika eskolan).....	65
j) Instrumentu taldea ikasleko.....	70



k) Instrumentu taldea ikasleko (beste asignatura batean ere matrikulatuta egonez gero).....Doan

4.5. Udal kiroldegiaren erabilera

Aplikatu beharreko tarifa berriak hauek dira (BEZa barne):

ELEKTROESTIMULAZIOA		
	Abonatuak	Ez-abonatuak
Saio 1	40 €	50 €
10 saioko bonua	270 €	350 €

2.- Erabaki hau eta hasitako espedientea jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiari argitaratuz, honako arauen arabera:

a) **Ikusgai dauden tokia:** Udaletxeko idazkaritzan.

b) **Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) **Erreklamazioa aurkez dezaketenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) **Aurkezteke lekua:** Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) **Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Gotzon Igoa zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela honako arrazoiengatik:



- Musika Eskolako tarifak direla-eta bi injustizia gertatzen direlako: batetik, Aiako Udalari eskatu beharko litzaioke hango herritarren matrikularen kostuaren zatia ordaintzea; eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari exijitu behar zaio Musika Eskolaren pertsonal eta funtzionamendu gastuen %33 finantzatzea.
- Euskal dantzako asignaturaren tarifa gehiegi igotzeak kalte egiten diolako, zuzen-zuzenean, Harribil dantza-taldeari.

4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO ZARATA-MAPARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2016ko martxoaren 9an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko zarata-mapari.

2.- Zarata-mapa JENDAURREAN JARTZEA hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarkiak argitaratuz, interesatu guztiek aukera izan dezaten aztertzeke eta, hala nahi badute, alegazioak aurkezteko. Zarata-maparen dokumentazioa jendaurrean izango da Orioko Udaleko bulego teknikoan eta Udalaren webgunean (www.orio.eus).

Hori guztia, Euskadiko Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoa betez.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN BIGARREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2016ko martxoaren 9an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzaren bigarren aldaketari, honako termino hauetan:

***5.4. artikulua.** Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gutxieneko diru-sarrera ponderatuak ez dira inoiz izango babes ofizialeko*



etxebizitza tasatua lortu ahal izateko ezarrita dauden gutxieneko diru-sarrerak baino txikiagoak.

2.- Espedientea **JENDAURREAN JARTZEA**, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal ordenantzaren aldaketa hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantzaren aldaketa, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KALE-GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK ETA BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2016ko martxoaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko kale-garriketa zerbitzua kontratatzeke klausula administratibo partikularrak eta baldintza teknikoak orria, ondoko laburpenean jasota dagoen bezala:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailetza

2.- Kontratuaren xedea.

- a) Kontratu-mota: zerbitzu kontratua.
- b) Xedearen deskribapena: Orioko kale-garriketa zerbitzua emateko kontratua, baldintza tekniko eta administratibo partikularren orriaren arabera.
- c) Epea: Lau urte. Urtebeteko luzapenak egin ahal izango dira; baina, nolanahi ere, iraupenak, luzapenak barne, ezin izango du sei urteko epea gainditu.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- a) Tramitazioa: Ohikoa.



b) Prozedura: Irekia.

c) Era: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren zenbatekoa.

Urteko 307.797,53 euro + 30.779,75 euro, %21eko BEZari dagozkionak. Lizitatzailleek aukera izango dute kantitate hori hobetzeko.

5.- Bermeak.

a) Behin-behinekoa: 9.233,93 euro

b) Behin betikoa: Adjudikazio-kopuruaren %5.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazioa lortzeko.

Espedientearen dokumentazioa azter daiteke bai Orioko udal idazkaritzan eta bai Orioko Udalaren webgunean (www.orio.eus), Kontratatzaillearen Profilean.

8.- Proposamenak aurkezteko.

a) Aurkezteko azken eguna: 2016ko ekainaren 14a.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Klausula administratibo partikularren orrian zehaztutakoa.

c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.

d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HONDAKIN SOLIDO URBANOEN BILKETA ETA GARRAIO ZERBITZUA KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK ETA BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2016ko martxoaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko hondakin solido urbanoen zerbitzua kontratatzeke klausula administratibo partikularrak eta baldintza teknikoek orria, ondoko laburpenean jasota dagoen bezala:



1.- Erakunde adjudikatzalea.

- a) Erakundea: Oriko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

2.- Kontratuaren xedea.

- a) Kontratu-mota: zerbitzu kontratua.
- b) Xedearen deskribapena: Oriko hondakin solido urbanoen zerbitzua emateko kontratua, baldintza tekniko eta administratibo partikularren orriaren arabera.
- c) Epea: Urtebete. Beste urtebetez luza daiteke.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Era: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren zenbatekoa.

Urteko 178.861,41 euro + 17.886,14 euro, %21eko BEZari dagozkionak. Lizitatzailleek aukera izango dute kantitate hori hobetzeko.

5.- Bermeak.

- a) Behin-behinekoa: 5.365 euro.
- b) Behin betikoa: Adjudikazio-kopuruaren %5.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazioa lortzeko.

Espedientearen dokumentazioa azter daiteke bai Oriko udal idazkaritzan eta bai Oriko Udalaren webgunean (www.orio.eus), Kontratatzaillearen Profilean.

8.- Proposamenak aurkezteko.

- a) Aurkezteko azken eguna: 2016ko ekainaren 15a.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Klausula administratibo partikularren orrian zehaztutakoa.
- c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.



d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EHBILDU UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EMATEN DUEN AUTOBUS-ZERBITZU PUBLIKOARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

AUTOBUS ZERBITZUEN HARIRA EHBILDUREN MOZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko autobus zerbitzuetan egin berri dituen aldaketek gure bailarari eta gure herriari bereziki eragin diote. Besteak beste, Oriotik Donostiarako zerbitzuak hiri barruan orain arte egiten zuen ibilbidea aldatu egin du Diputazioak, herritarrekin eta inplikaturako udalekin inolako kontsultarik egin gabe, eta horren ondorioz, gure herriko zein bailarako herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua bereziki kaltetu da.

Batetik, ibilbide aldaketaren ondorioz, gure bailarako autobusak ez dira iristen Donostiako autobus geltoki berrira. Gipuzkoako autobus geltoki nagusia da geltoki hori, bertatik ateratzen dira lurraldetik kanporako autobus guztiak, eta gure bailarako herritarrek ez dute bertara zuzenean iristeko aukerarik, zerbitzu horri ez diotelako eman bertarako sarbiderik. Ondorioz, kasu honetan ere, herritarrek erdigunetik joan behar dute bertara.

Bestetik, urteetan Amaran erabili den geltokia kentzea erabaki du Aldundiak, orain arte herritarrei ematen zitzaien zerbitzu bat galduz.

Bi galera horiek herritarrengan kezka eta ezinegona sortu dute. Guk ere, bat egiten dugu kezka eta ezinegon horrekin, Urola Kostako biztanleek kalitatezko garraio publikoa izateko gainerako gipuzkoarrek adinako eskubidea dugula uste dugulako, eta garraio publikoa sendotzeko atzera pausoak egin beharrean aurrerakoa egin behar direla sinesten dugulako.

Herritarrek zerbitzu egokiena jaso dezaten, asteburu eta jai egun arratsaldeko ordutegien azterketa egin beharra dago. Donostiara doazen bi autobus pasatzen dira gure herritik 5 minutuko tartearekin, bata autopistatik eta bestea herrietatik doazenak, eta hauen ondoren ordubeteko itxaron aldia dago hurrengo autobusa iritsi arte. Ordutegi hauek egokitu egin behar dira herritarrei maiztasun egokiagoak eskaini ahal izateko.

Guzti honegatik, Udal Batzar honek Gipuzkoako Foru Aldundiari honakoa eskatzen dio:



1- Urola Kostako autobus zerbitzuek, Donostiako Geltoki Nagusiarekin lotura zuzena izan dezaten bermatzea eta horretarako egokien den ibilbide alternatibo bat aztertu dezala.

2. Aztertu beharreko ibilbide berrian Amara auzoarekin lotura izango duen geltokia txertatzea.

3. Asteburu eta jai egun arratsaldetako ordutegien azterketa egin dadila, autobusen maiztasunak egokitu ahal izateko.

4. Orioko Udalak erabaki honen berri emango dio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

EHbildu Udal Taldea. Orion, 2016ko martxoaren 18a

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EHBildu udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen autobus-zerbitzu publikoari buruz, goian jasota dagoen bezalaxe.

EHBildu udal taldearen bozeramaile Emeterio Iribarrek hartzen du hitza eta alkateari eskatzen dio aurrerantzean sar dezala eskari eta galderen gaia ezohiko udalbatzarren gai-zerrenda egiterakoan.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,